

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3139

162/2020 EBAZPENA, uztailaren 14koa, Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuaren zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Jose Antonio Monzón Rueda jauna lau urterako izendatzen den, aldi baterako, luzatzeko aukerarekin, Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko atal sanitarioko zerbitzuburu, espezialitate honetan: Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia.

Urriaren 9ko 503/2019 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko atal sanitarioko zerbitzuburu lanpostua lehiaketa bidez betetzeko, espezialitate honetan: Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia.

Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztutako eskabideak balioztatu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Jose Antonio Monzón Rueda jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko atal sanitarioko zerbitzuburu, espezialitate honetan: Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat etorriz, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jose Antonio Monzón Rueda jauna Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko atal sanitarioko zerbitzuburu izendatzea aldi baterako, espezialitate honetan: Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, eta aldi baterakoa izango da luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta ondorioetarako data hau izango da: Ebazpen honi dagokion iragarkia EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, luzapena onartzen ez bada, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat etorriz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesduanri eta Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osa-kidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2020ko uztailaren 14a.

Barakaldo-Sestaoko ESIko zuzendari gerentea,
JOSEBA JULEN BALLESTERO ZARRAGA.